

Gure elkartearen balorezko proposamena ekin ahal izateko, hori bera parte-hartzaileei helarazteko, haiekin dugun harremana mantentzeko eta haien beharrak zein nahiak asetu ahal izateko, jarduera desberdinak eramango ditugu aurrera. Hori dela eta, esan daiteke hiru bloke nagusietan antolatuko direla jarduerak: beste elkarteekin lankidetzan aritzea eta harremanak izatea, gure elkartearen berezko ekintzak (sukaldaritza-tailerra, musika-tailerra, irteerak...) eta azkenik, ekintzen zein planifikazioaren ebaluazioa.

Lehenik eta behin, kulturen eta migrazioan aritzen diren elkarte ezberdinekin harremanetan jarriko gara, bertara jotzen duten parte hartzaileei gure elkarteari buruzko informazioa helarazteko. Izan ere, kontuan edukiko dugu elkarte horien helburuak eta funtzionamendua zein den. Hau da, gure elkarteak aisialdirako espazioa zabaltzen die, haien identitatea ahaldunduz eta harreman horizontalak sortzeko aukerak zabalduz. Beraz, aurretik aipatutako beste elkarte horiek lankideak izango dira, parte hartzaileen bizi kalitatea hobetzeko modu integral batean.

Gainera, elkarte horietako profesionalek aukera izango dute ere gure elkartean parte hartzeko, formakuntza zein tailer ezberdinak aurrera eramanda noizean behin. Hau zehazteko, beharrak identifikatzea funtsezkoa izango da.

Jarraitzeko, parte hartzaile ezberdinen jatorria eta kultura kontuan hartuko dugu. Honekin lotuta eta aurretik adierazi bezala, Latinoamerikako zein Afrikako parte-hartzaileengana zuzenduko gara. Izan ere, horren inguruko ekintza ezberdinak antolatuko dira, bakoitzaren kulturari aitortza emanez eta besteena ezagutzeko aukera zabalduz. Horretarako, hilabete bakoitza kultura/herrialde zehatz baten oinarrituko gara.

Hilabete bakoitzaren lehenengo bi-hiru egunetan zehar, hilabete horretan oinarri gisa hartuko den kultura edota herrialdea aukeratuko da. Hori egiteko, asanblada bat burutuko da parte-hartzaileekin batera, eta talde mailan modu demokratikoan eta parte hartzailean aukeratuko da. Hilabete bakoitzeko lehenengo astean egindako bilera horretan, aurreko hilabetearen ebaluaketa orokorra burutuko da, eta aldi berean, hurrengo hilabeteako antolakuntza zehaztuko da. Modu honetan, ekintza bakoitzaren nondik norakoak zehaztasunez ezarriko dira, hala nola, sukaldaritza-tailer bakoitzean egingo dena, hori sukaldatzeko egin beharreko erosketak... Ali berean, burututako ekintzen ebaluazioak, etorkizunera begira hobekuntzak ezartzen lagunduko digu.

Beraz, hilabete bakoitzean, kultura ezberdinekin lotutako ekintza anitzak planteatzen dira: hitzaldiak ematea esperientziak kontatuz, sukaldaritza-tailerrak prestatzea, dantza-tailerrak, hizkuntza-trukeak, irteerak, musika tailerrak, antzerkiak...

Hitzaldiei dagokionez, kultura eta herrialde desberdinetako elkarteak ekarriko ditugu, parte hartzaileen nahiak eta beharrak kontuan hartuz. Hitzaldi hauen iraupenaren aldetik zehaztuta egongo dira gutxi gorabehera 1,5-2 ordutakoak izanda. Adibidez, Kale Dor Kayiko elkarteko langileak gerturatuko dira, ijitoen kulturari buruz eta haien familia ereduari buruzko informazioa zabaltzeko.

Ekintza horiek kontuan izanda, saiatuko gara ere harreman komunitarioak sortzen, hala nola, inguruan egon daitezkeen eskoletara gerturatzea hitzaldiak ematera kultura ezberdinak ikustarazteko eta parte-hartzaileen esperientziak kontatzeko, sentsibilizazioa lantzeko helburuarekin.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

 Beste elkarteetako hitzaldiak	 Gaueko jarduerak	 Hizkuntza trukeak
 Bilera orokorra	 Antzerki eguna	 Ekitaldi berezia
 Sukaldaritza tailerra	 Musika tailerra	
 Dantza tailerra	 Irteera	